

Berdinketa hausteko, alkatetza partekatzea erabaki dute Ezkio-Itxason

ERREDAKZIOA
Donostia

Ezkio-Itsaso Elkarlaneanek eta Ezkio-Itsaso Herrikideak alkatetza partekatzea erabaki dute. Hala, hiruna zinegotzi izango dituzte eta alderdi bakoitzeko hautagaiak bi urtean beteko du alkate kargua.

Hauteskundeetan boto kopuru bera jaso zuten bi alderdiek, 185na. Hori dela eta, legeak dioenari jarraituz, zozketa egin behar izan dute bi hautagaitzetako zeini eman zazpigarren zinegotzia erabakitzeko. Berez, Ezkio-Itsasoko Herrikideak atera da garaile, baina zozketa tramite hutsa izan da. Izan ere, bi aldeek akordioa lortu zuten zozketa egiterako. Azkenean, bakoitzak hiruna zinegotzi izatea erabaki dute eta aulki bat hutsik uztea.

Alkatetzari dagokionean ere, bat etorri dira bi aldeak. Adostuta koaren arabera, Jose Ignacio Etxezarreta Ezkio-Itsasoko Herrikideak plataformako buruak hartuko du kargua lehen bi urteetan. Legegintzaldia, berriz, Tomas Etxaniz Ezkio-Itsaso Elkarlaneaneko kideak amaituko du.

Amnistiaren Egun Nazionala ospatuko dute igandean Oreretan

ERREDAKZIOA
Donostia

1977ko amnistiaren astetik 30 urte pasa direla gogoratzeko Amnistiaren Egun Nazionala ospatuko dute igandean Oreretan (Gipuzkoa). Goizetik hasi eta iluntze partera arte hainbat ekitaldi izango dira.

Ekimenaren bultzatzaileek azaldu dutenez, orain 30 urte gauzatu ez zen amnistiak zerikusiz zuzena du egungo egoera politikorekin. «Orduan eman ez ziren amnistiak eta aldaketa politikoez gaurko egoera esplikatzen dute. Gaur indarrean diren aldarrikapenak eta premiak dira», azaldu dute. Hori dela eta, beharrezkotzat jo dute orduko akatsak ez errepikatzea.

Goizeko hamaiketan hasiko da jaia. Ekitaldi politikoz gain, herri kirolak, bertsolariak eta Txan Magoa izango dira. Ondoren, bazkari herrikoia egingo dute Koldo Mitxelena Plazan. Arratsalde partean, berriz, musikak hartuko du protagonismoa, Estanga Anaiek, Betagarrik eta Sagarroik kontzertua eskainiko baitute. Bestalde, egun guztian kale animazioa, haurren gunea eta erakusketa egongo dira.



LABeko ordezkariak Adegri patronalaren egoitza aurrean egindako mobilizazioetan. JON URBE / ARGAZKI PRESS

Protestak Adegiren aurrean

Metalgintzako hitzarmenaren aurrean Adegik duen jarrera salatzeke asmoz, elkarretaratzea egin zuen atzo LAB sindikatuak. Patronalaren Donostiako egoitzaren aurrean bildu ziren. Hantxe bertan izan zen Gipuzkoako grafikagintzako hitzarmen kolektiboaren alde egindako

Metalgintza eta grafikagintzako langileak patronalaren egoitza aurrean bildu dira

kontzentrazioa ere. Kasu horretan, LABek, ELAk eta CCOO sindikatuak deituta. Izan ere, atzo eta gaur greba egunak dituzte Gipuzkoako grafikagintzako langileak. Hori dela eta, manifestazioa egingo dute gaur Tolosan. Triangelu plazatik abiatuko dira 12:30ean.

1,45 milioi euro, Ipar Euskal Herrian euskara sustatzeko

AITOR RENTERIA
Baiona

Eusko Jaurlaritzak eta Euskaren Erakunde Publikoak (EEP) Ipar Euskal Herrian euskara sustatzeko diru laguntzen ebazpena aurkeztu zuten atzo Baionan. Orotara 1,45 milioi euro banatuko dituzte euskalgintzako herri eragileen artean, aurkeztu dituzten egitasmoak burutu ahal izateko. Joan den otsailaren 7an Eusko Jaurlaritzak eta EEPk euskara sustatzeko fondo bateratua onartu zuten. EEPk milioi bat euro jarri ditu eta Eusko Jaurlaritzak 450.000 euro. Geroztik deialdi publiko bateratua egin dute. Orotara 60 eragilek egin dute eskaria, 82 egitasmo aurkeztuz. Azkenean 43 eragilek jasoko

dituzte diru laguntzak 54 egitasmo burutu ahal izateko. Orain artean laguntzak jasotzen zituzten egiturek antzeko laguntzak edo handiagoak ukanen dituzte. Hala nola, Euskal Irratiek 250.000 euro jasoko dituzte, AEK-k 242.000 euro eta Uda Lekuk 106.800 euro. Hitzarmen Berezitik baztertu zituzten hainbat egiturek ere laguntza ukanen dute. Seaskak 200.000 euro ukanen ditu.

«Mugaz gaindiko euskararen aldeko erakunde mailako harreman iraunkorrak ezarri ditugu eta atzera bueltarik izango ez duen bidea hasi gara egiten, aurreneko urratsak emanez», adierazi zuen Patxi Baztarrika Jaurlaritzako hizkuntza politikarako sailburuordeak.

EHUk, UNEDek eta Eusko Ikaskuntzak, Internetera jauzi

ERREDAKZIOA
Bilbo

Graduatu ondoko ikasketak eta eta heziketa jarraitua internet bidez egiteko aukera egongo da datorren ikasturtetik aurrera. Euskal Herriko Unibertsitateak (EHU), Eusko Ikaskuntzak eta Espainiako Urrutiko Hezkuntzako Unibertsitate Nazionalak (UNED) hori eskaini ahal izateko hitzarmena sinatu zuten atzo. Hitzarmenean lortutakoak egunero klasera joaterik ez duten ikasleentzat mesedegarri gertatuko zaiela azaldu dute sinatzaileek.

Komunikazio teknologia berrietan oinarrituta irakastea da hitzarmenaren helburu nagusia. Nahi duten unibertsitate guztiek

hitzarmen horretan sartzeko aukera izango dute, betiere sinatzaileen oniritziarekin. Oraingoz graduatu ondoko sei ikasketak eskainiko dituzte 2007-08 ikasturtetik aurrera egitasmoaren sortzaileek. Ingurumen Zuzenbidea eta Nazioarteko Merkataritzaren Zuzenbidearekin lotutako gaiak jorratuko dira bertan, besteak beste. Hizkuntza Plangintza Giza Eskubideak, Euskal Ikerketak eta Europako Batasuna Zuzenbide Konstituzionalari buruzko ikastaroak eskainiko dira ere.

Etorkizunean gizarteak eskatzen dituen alorretan «sakontzeko eta lan egiteko» asmoa azpimarratu dute hitzarmena sinatu duten hiru erakunde akademikoak.

Eusko Jaurlaritzak «biktimen» gaineko osoko bilkura egingo du

GASTEIZ ■ «Terrorismoaren biktimen» inguruko osoko bilkura monografikoa egingo dute estreina-koz Eusko Legebiltzarrean. Izaskun Bilbaok esan duenez, udazkenean izango da, kurtso politikoa hastearekin batera. Hurrengo urteetan ere egiteko asmoa dute.

CIE Gamekoko langileek lanuzteei ekin diete, lan itun duinago baten eske

GASTEIZ ■ CIE Gamekoko langileek lau orduko lanuztea egin zute atzo, hitzarmen kolektibo duin baten alde. Mobilizazio kate baten hasiera izan zen atzokoa, enpresaren jarrera aldatu ezean hilaren 13an eta 27an ere lanuztea egiteko asmoa baitute langileek.

UGTk ingurumen ordezkariak eskatu ditu enpresetan

GASTEIZ ■ UG Tk enpresetan ingurumen delegatuak sortzeko eskatu du, langileek kutsadura murrizteko erabakietan parte hartzeko eta Kyotoko protokoloak ezarritako helburuak betetzeko. UG Tk uste du Kyotoko protokoloa «hertsiki» bete behar dela.

Ordiziako lau etxetan lapurreta egin dute, bizilagunak lo zeudela

DONOSTIA ■ Ordiziako (Gipuzkoa) lau etxetan lapurtu zuten atzo goizaldean, etxetako bizilagunak lo zeuden bitartean. Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailak jakinarazi du etxe guztiak behealdean zeudela eta lapurrak irekietako leihoetatik sartu zirela.